Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea**!

JALGI HADI PLAZARA!

Webguneei lotuta:

✓ "*10 egunez pantailak utzi, gure pantailen mendekotasunaz ohartzeko*" kanpaina egiten dute Urruñako ikastolakoek urtero, maiatzean. Zertan den jakin nahi baduzu, EITBko bideo labur batean daukazu informazioa. Honako esteka honetan klikatuta ikusiko duzu. Zer iruditzen zaizu? Eman iritzia ikaskideei.

✓ Azkue fundazioaren estekan teknologiak dakartzan beste arazo batzuei buruz hitz egiten digute: "*Munduan telefono gehiago daude pertsonak baino: 7.200 miloi lagun eta 7.300 miloi gailu mugikor. Gailu bakoitzak ia 30 mineral eta metal ezberdin erabiltzen du. Gailu baten bizi erabilgarriak ez du irauten bi urte eta erdi baino gehiago*". Oso interesgarria iruditu zaigu beste ikuspuntu honen inguruan ere zerbait txertatzea. Sartu estekan, irakurri eta pentsatu zer iritzi duzun gaiaren inguruan. Hurrengo egunean, ikaskideei azaldu eta komentatu haiekin gaia.

✓ Guraso.eus orrialdean teknologia berriek seme-alabekin sortzen dituzten gatazka, arazo, egoera eta abarren inguruko artikulu eta berri interesgarriak daude. Sartu, aukeratu horietako bat, eta eman horren berri hurrengo egunean ikasgelan.

✓ *Gazteak Zibereskubideen alde* izeneko bideo interesgarria ikusteko, klikatu esteka honetan. Ikusi ondoren, komentatu ikaskideekin.

Behin eginkizun komunikatiboa amaituta:

✓ Aprobetxatu ikasgelan egindako lana. Egin ezazue taldekoen WhatsApp taldea bideratuko duen arautegi bat. Negoziatu guztien artean zein izango diren erabili ahal izateko aholkuak, eta idatzi. Adibidez: bidaliko dituzuen mezu guztiak euskaraz izatea, ordutegi jakin bat errespetatzea, eskolako lanekin lotura izatea... Eta hemendik aurrera, jarraitu!

✓ Inguruan gaztetxorik baduzu, proposa iezaiozu sakelakoaren eta, oro har, pantailen erabileraren inguruko kontratu bat sinatzea. Zer iruditu zaio? Harekin hitz egin ondoren, konta iezaiezu ikaskideei zer erantzun dizun.